

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak, Belateko eta Almandozko tunelen irekierarekin bat etorriz, Zuastiko bidesaria berrezartzea erabaki du kamioientzat, azaroaren 1ean

Ekainaren 4tik A-15 errepideko zirkulazioa sustatzen duen ibilgailu astunentzako behin-behineko deskontu gehigarria indargabetu eggingo da

Astelehena, 2018.eko urriak 29

Nafarroako Gobernuak erabaki du ibilgailu astunei Sarasako bidesaria (Zuasti) bi norabidetan debalde igarotzen uzteko neurria indargabetzea. Ekainaren 4an sartu zen indarrean, eta erabaki zen Belateko eta Almandozko tuneletako obrak amaitu arte mantentzea, azaroaren 1era (osteguna) arte hain zuzen, aurreikusitakoaren arabera.

Tuneletako obrei hasiera eman aurretik, AP-15 errepidearen emakida-enpresarekin, Audenasarekin, maiatzean erabakitakoaren arabera, bi xede lortu nahi dira: batetik, N-121-A errepideko obren ondorioz trafiko-murrizketek garraio-sektorean eragindako gehiegizko kostuak arintzea, eta, bestetik, Leitzarango autobiareneko zirkulazioa sustatzea, Iruñearen eta Frantziaren artean ibilbide luzeko trafiko gehiena konektatzeko bide egokiena izan dadin. Hain zuzen, Gobernuak emakida-enpresari proposatu zion ekainaren eta azaroaren artean ibilgailu astunentzat deskontu gehigarri bat jartzeko, modu horretara lau ardatz edo gehiagoko ibilgailuek ez zutelako Sarasako bidesaria ordaindu beharko.

Deskontu gehigarri hori izateko, ekainaren 4tik azaroaren 1era ibilgailu astunek bidesariari dagokion BEZ ordaindu behar dute. Horretarako, bankuko txartela edo Via-T erabil dezakete, eta, dirutan ordainduz gero, ohiko prezioa mantentzen da.

Ekainaren 4tik tuneletako obrak amaitu arte ibilgailu astunek bidesaririk ordaindu behar ez izateko 2018ko maiatzaren 30eko erabakia partzialki aldatu du Gobernuak, deskontu gehigarri hori baliogabetzeko.